

**EDITH STEIN: AUSCHWITZ-ETIK ALTARETARA.
KANONIZAZIOAREN KRONIKA**

Karmel aldizkariaren azken zenbakian Edith Stein (Teresia Benedicta a Cruce), emakume handia, izan zan gai nagusia. Oraingo zenbakian idazlan bi gaineratzen ditugu: Arantza Gonzalez andreak Edith Steinen pentsamendu filosofikoari buruz idatzitako lana (aurreko zenbakirako egina, baina berandu heldu zana), eta bere kanonizazioaren inguruko ekintzen kronika.


Urriaren 11n santuen artera jaso eban Jon Paulo Aita Santuak. Mende honetako emakumerik handinetariko honek me-rezi eban gaurko gizartearen aurrean argizuzi legez jarria izatea. Judegua, emakumeen eskubideen aldeko borrokalaria, filosofoa, Kristorengana bihurtuz katoliko egina, Karmeldarra, Auschwitzeko martiria izan zan.

Auschwitz-etik altaretara jarri dugu izenburuan Erromara eginiko gure bidaiaren kronika egiteko asmotan, hori izan zalako bere bidea. Baina artikulu honetan bestetara egingo dogu bidaiari: Erromatik Auschwitzera. Kontaketa honek Edith Steinen kanonizazioa dau helburu edo gai nagusi; hau da, bere aintza, baina, baita holokaustoa edota Auschwitzeko gurutz-bidea ere.

1. Erromara.

Euskal Herriko Karmeldarrek, batez ere Nagusiak, 25 pertsonako talde bat batuz, Ordenako Edith Steinen egun handian parte hartzea nahi izan eben. Guztira 25eko taldea, 7 karmeldar eta beste abade bi joan ginen Erromara.

Urriaren 10ean Gasteizen goizeko 6etan sartu ginan 23 pertsona autobusean, eta Madrilen batu jakuzan beste bi. Bide erdian, 8,30etan jatetxe baten atsedena



egiteko bakarrak izango ginalakoan geratu, eta beste 10 autobus aurkitu genduzan.

Madriletik 13,15ean urten eta 15,05ean heldu ginan Fiumicino, Erromako aireportura. Itxaroten genduan gidaria. Eta, astirik alferrik galdu barik autobusa hartu eta Erromara hurreratu ginan, autobusean joanez arte eta historia handiko alde batzuk ikusteko asmoz. Salbuespen bat egin genduan, hau da, geraldia egin genduan

Erromako sarreran, San Paulo "extramuri" deitzen dan basilika handia ikusteko.

Erromara sartzean, Byron, olerkari erromantiko handiak, Erromari asmatutako olerki baten hasiera gogoratu genduan:

"Oi Erroma! Ene Herria! Bihotzeko Herria!
bihotzez umezurtzak (direnak) zuri begitu beharko,
Hildako Inperioen ama bakartia"...

Esan dan legez, lehenengo ikustaldia, *San Paulo* basilikan egin genduan. Berau dot basiliken artean gogokoena. Egundokoa eta lasaia, begiak baino gehiago bihotzak argiz betetzen dituen argi-itzaletan urrezko sabaia, eusten deutsoen alabastrozko zutabe ugariak harmonia handiz lerrokatuta dituela. Urrez apaindutako bertako ikonoak lehena baino gehiago geroa dakarskue aurrera. Eta danen artean jaun eta jabe Kristo "Pantokrator" deitua "*Venite benedicti Patris mei; percipite Reg-*



num... idatzita dakarren liburua eskuetan daukala... Guzti hon-
nek lasaitasuna arte eta bake bihurtu dala emoten deust. Eta
zer esan XIII. mendearen hasieran eraikia izan, eta hainbeste
zutabe guztiz ezberdinen gainean jasotako bertako klaustro
ikusgarriari buruz?

Hiru enperadoreen artean eginiko basilika dogu; jatorrikoa,
neurri txikikoa, Konstantinok IV. mendean eraikia; hori zala
eta, Valeriano II., Teodosio eta Arkadio enperadoreek eraikin
barri bat egin eben IV. mendean. Geroago, barrizatu beharra
izan eban. Gehienbat suak desegina izan zan 1823an. Hori da-



la eta, oraingo basilika 1825-1840. urteen bitartean oso-osorik barriro eraikitakoa da.

Ikustaldi hau laburra izan zan, Erroman egin genduzan gainerakoen antzera. Hainbeste ikusteko eta hain ordu gutxi!

Arratsaldeko orduak autobusean egin genduzan Erromako ikustekoei begira: "*Circo Massimo*" handia (250.000 ikusleentzako lekua eukana; bertan hil zituen hainbat kristau) igaro ostean, han agertu jakun aurrez aurre K.a.ko 79. urteko "*Colosseo*" itzela. Gaur egun konpontzen diharduen nahiko ondo jagondako monumentu-hondarrek erromatarren inperioko hainbeste jazoera eta joko ekarri euskuezan gogora. Alderik alde kiosko, autobus eta automobil zurrunbiloz beteta; beti bere lehen aldietako miresgarriaren lekukoak diran turistez inguratuta.

Aurrerantz egin, eta *Konstantinoren Arkua* igaro ostean, *Palatino* dator Erromaren historiaren jatorria izan zan muino batean. Egin-eginean bere, Domiziliano enperadoreak K.a.ko I. mendearen azkenetan eraikita, hondakinek argi agertzen dabene legez muino honetan egozan printzeen jauregi ospetsuenak *Domus Augustana*, *Palazzo di Tiberio*, *Casa Dorada*, *Palazzo dei Flavi*.

Zertxobat aurrerago aurkitzen da antzinako Erromako gizabiltoki izan zan *Erromatarren Forua*. Gaur egun erromatarren hainbat tenplu paganoren (Konstantinoren basilika, Antonino eta Faustinoen tenplua, Vestaren tenplua, Saturnoren tenplua...) eta erakin publikoren (*Curia*, Senatua batzen zan eraikina, gaur egun ondoen dagoena; *Rostra*, Kikero ospetsuaren mintzalekua) eta arkuen (Titoren arkua, *Septimio Severoren* arkua,...) eta abarren hondakinak.

Trajanoren bainuetxeak igaro ostean, Erroma barriaren ispilu dan 1455ko Errenazimenduko *Palazzo Venezia* (Mussolini-ren mintzaldi lekua) jauregia dagoen *Piazza Venezia*-ra heldu gitan. *Via dei Fori Imperiali* deritzanak lotzen ditu *Colosseo* eta *Piazza Venezia*. Bertan ageri da harro-harro Victor Manueli



1911n eginiko monumentu ikusgarria (*Altare della Patria*). Hurrean ageri da tente-tente Trajanoren zutabea. Eta *Tevere* ibairantz eginik alde batera utzi genduan *Kapitolioa*, muino honetan aurkitzen dan Jupiter-en tenplua (K.a. 500) bertatik Errroma osoa ikusten dala. Kapitolioko plazako planoak Michelangelo artista handiak egin zituan.

Gero, autobusetik jaitsi eta *Fontana de Trevi* ikustera joan ginan. Erromako iturrien artean ikusgarriena eta ospetsuena dogu, beti jendez gainezka egoten dana... Jarraian, *Palazzo del Quirinale* handia eta *Palazzo Barberini* igaro ostean, *Santa Maria della Vittoria* eleizaren aurretik joan zan autobusa hotelera. *Santa Maria della Vittoria*, karmeldarren eleizan aurkitzen da Gionlorenzo Bernini ospetsuak eginiko Santa Teresa Avilakoaren irudia.

2. Edith Stein

Urriak 11. Egun handia. Gure erromesaldiaren helburua: Teresa Benedikta Gurutzekoaren kanonizazio eguna.

Iratzartu eta eguraldi hain ederra ikustea benetan pozgarria, eta egun eder baten atari itxaropentsua izan zan. *S. Pietro* plaza ikusgarriko egintza erlijiosoak 10etan hasten ziran, baina guk jarlekuak ziurtatuta eduki arren, lehenengoko lekuak hartzeko goiz joan ginan; bertan aurkitzen ginan bederatziaik laurden gitxiagotan.

Handi-handi, lasai, astiro, dana harmonian egiten da Aita Santuaren inguruan. Hainbeste abade, apezpiku eta kardinal ir-tenda gero agertu zan Aita Santua. Hogeita hiruren artean emon ehen elkarmeza, euren artean Koloniako eta Krakowia-ko kardinalak, Karmel Ordenako jenerala, Alemaniako Karmel-darren probintziala, etab. zirala. Eta 105 abade Gure Jauna ha-natzeko.

San Pietro plaza aldez alde beteta, eguzkia goitik behera be-rotuz goizeko freskura uxatzen, bihotzak gogoz bero, ikuski-zun handiaren aurrean begiak pozgarri, Alemaniatic etorritako




1.000 gaztetxo baino gehiago, akolito jantziz apainduta zarata-tsu...

S. Pedro-ko fatxada (zoritzarrez, andamioz bateta, zaharberitze lanetan) eder eta handiaren erdian Teresa Benediktaren irudi handia, hau da, Edith Stein karmeldar jantzita egoan.

Elizkizuneko abestiak hainbat talderen artean, batez ere *Capilla Sixtina* deituaren kontura izan ziran.

Kanonizazio erritua

Mezaren hasieran, Jose Saraiva Matins, santuen bizitzak aztertzeke Kongregazioko burua, Familia Santuaren Simeon Karmel ordenako eskatzailea (kanonizazio-bideak gertatzen ibilitakoa) eta Giulio Dante Kontsistorioko abokatua Aita Santuaren aurrera aurkeztu ziran Edith Stein santa izandatzeko eskatzera, era berean labur-labur beraren biografia irakurritz. Eta bertan batutako milaka sinestadunek letaniak abestu ostean, Aita Santuak kanonizaziorako berbak esan zituan:




"Hirutasun Santuaren ohoretan, Stinesmen Katolikoaren ohoretan eta kristau bizitza indartzeko, Jesukristo Gure Jai-naren, Pedro eta Paulo apostolu santuen eta neure abalbi-deak erabiliz, sakontasunez gogoeta egin ostean, hainbat al-diz Jaungoikoaren laguntza eskatu eta apezpikutzan anaiak diudan hainbaten iritzia entzunda gero, Santa aitortu eta izandatzan dot Beata Teresa Benedikta Gurutze-koa eta Santuen zerrendan sartzen dot eta Eleiza osoan santuen artean debozioz ohoratua izan dadila agintzen. Aitarene eta Semearene eta Espiritu Santuarene izanean".

San Pedro plazako guztiak txaloka hasi ginan gure onarpena eta poza agertuz. Jarraian *Aintza* abestu genduan latinez Kapilla Sixtina-rekin batera Edith Steinen irudi handiari adi-adi begira: aurpegiera lasaia eta begirada sakona zituen; Alemaniatic Holandara iheska joan zan unean pasaportea egiteko, hau da, beriotza baino hiru urte lehenago, ataratako argazkiaren kopia. Argazki handi harek bere bizitza eta XX. mendeko Europako historiaren unerik tragikoenak gogoratzen euskuzan. Bertan, Teresa Benedikta, Karmeldar jantziak dituela, gurutzearen misterioaren indarra distiratur, zorionezko geroa itxaroten... ageri da.

Aita Santuarene berbaldia

Eta irakurgaiak alemanieraz, latinez eta grekoz irakurri ostean, danok Aita Santuarene berbaldia entzuteko gogo bizitan gengoan; italieraz eta alemanieraz egin eban berba.

Lehenengo eta behin erromesak agurtu zituan: aparteko eran Edith Steinen senideak (bere familia) eta karmeldarrak (bere bigarren familia) eta Alemania eta Poloniatik etorritako ordezkapenak, Helmud Kohl presidentea, Nordrhein-Weslfalen eta Pheinland-Pfalz-eko presidentea, Koloniako alkatea eta, baita, Jerzy Buzek Poloniako ministro-presidentea aitatur. Aparteko eran, agurtu zituan, baita bere, Breslau, Köfh, Münster, Speyer, Kraków eta Bielsko-Zywiec-eko elizbarruetako erromesak, kardinalak, apezpikuak eta apaizak; era berean,



Alemania, Estatu Batu eta Poloniatik etorritako errömesak.

Santa barriaren aitateta

“Edith Stein, bere aizta eta Holandako beste hainbat judegu kristauekin batera Auschwitz-eko kontzentrazio esparrura judegua zalako eroran eben, bertan hil ebela besteekin batera gas-gelan. Gaur egun begirune handiz gogoratzen ditugu. Hara eroan aurreko egunetan uko egin eutson askatzeko egin eutsoen eskaintzari, honako hau esanez: “Ez egin horrelakorik; zergatik izan behar dot nik apartekoa? Bidezkoa ete da nik mesede hori izatea bateatuta nagoelako? Nik neure senideen zorian parte hartuko ez baneu, hondatuta geratuko litzake nire bizitza”.

Aita Santuaren deiadarra:

“Jaungoikoaren eta senideen maitasunagatik, beste behin oinazez beterik jasoten dot indartsu nire ahotsa honako hau esateko: **ez dadila aurrerantzean inoiz errepikatu horrelako egintza biltzailerik**, inolazko talde etnikorengan, inolazko herrirengan, inolazko arrazarengan, mundu honerako inongo bazterretan. Danentzat balio dauan deiadarra da: borrontate honeko gizaki guztientzat, Betikoagan eta Zuzenarengan sinesten daberen danentzat, euren buruak Kristo haragi egindako Berbeari alkartuta sentitzen dituen danentzat. Danok alkartuta egon behar dogu. Gizakiaren duintasunak horrela eskatzen dau”.

Bere bidearen abiaburua askatasuna izan zan:

“Hasieran Edith Steinek askatasun egarria ageri dau. Eten barik dabil bila. Bere espirituak gogaituta itxaroten eban. Gogo bizi-bizi eukala alde batera utzi eban filosofiaren bide neketsua. Saria lortu eban. Egia aurkitu eban. Edo hobeto esanda, Egiak bere babesean hartu eban. Egiak izan bat eukala, “Jesukristo”, jakitera heldu zan. Ordutik aurrera haragi egindako Berbea izan zan bere gogo-arnasa. Karmeldar eginda gero, bere bizitzako une hori gogoratzen eutsonean honako hau esan eutson benediktar bati: “Egia bila dabilena Jaungoikoaren bila dabil, ohartuta edo ohartu barik”.

Edith Steinek ama judutarrarengandik erlijio-heziketa jaso arren, 14 urte eukazala ‘bertan behera itzi eban gurata eta askatasunez otoitz egitea’. Bizitzaren jabe, inolazko lokarri barrik, izan nahi eban, bere erabakietan askatasuna indartu nahian. Bere bide luzaren ostean ustebako ezagutza-gunera: Kristoren maitasunari lotzen jakona bakarrik izan daiteke benetan askea ikustera heldu zan”.

Gurutzeari egindako eskaintza:

“Gurutzearen misterioak pixkanaka-pixkanaka bizi osoa inguratu eutson, eskaintzarik handiena egitera bultzatuz. Gu-

rutz gainean jarritako emaztearen antzera edo, Teresa Benedikta aitzak 'gurutzearen zientziari' buruz orrialde sakonak idazteaz gainera, azkeneraino jarraitu eutson bideari Gurutzearen eskolan. Gure hainbat garaikidek Gurutzea ixilarazo nahiko leukee. Baina ez dago ixiltasunez inguratutako gurutzea baino ezer esanguratsuagorik. Maitasunak emankor bihurtzen dau oinazea, eta oinazeak sakontasuna emoten deutso maitasunari".

Eskerrak emon deioguzan Jaungoikoari doai honegatik. Santa barria izan deigula eredu askatasunaren aldeko gure zerbitzuan, egiaren aldeko gure bilaketa-bidean... Zuk, Santa Teresa Benedikta, egin erregu gure alde. Amen".

Adi-adi egozan Aita Santuaren berbaldi hau entzuten, alkarmezako partehartzaleez gainera, beste 26 kardinal, hainbat artzapezpiku eta apezpiku, eta hainbat eta hainbat erromes, baita, Teresa Benedikta McCarty gaztea, santa barriaren bitartez 1987ko martiaren 24an harrigarriro osatutakoa bere.

Mezako gainerakoak

Eskaintzan *Ubi caritas eta amor* abestu zan. Meza santuak handitasunez jarraitu eban,... jaunartzeko une garrantzitsua heldu zan arte; eguzkiaren izpi beroetatik babesten ginduzan Vatikanoko kolorez eginiko guardasolak eskuetan eukezan gazteak lagun genduzala, 100 abadek baino gehiagok banatu genduan Gurejauna. Bien bitartean abesbatzak *In Spiritu eta veritate oportet adorare; dicit Dominus*, eta *Heiliges kreuz, so hoch begradet* (Gurutze santua, hain bedeinkatua) kantu alemaniarra abestu zituan.

Angelus esateaz batera, Aita Santuaren Auschwitz-eko martiriei buruzko azken berbak eta han batutakoen txalo luzeak, batez bere gaztetasuna emonez bertan parte hartzen eben milatik gora akolitoen eskuek ateratakoek emon eutsoen amaiera elizkizun pozgarriari.

Urriak 12

Kanonizazio egunaren biharamunean, eskerrak emoteko meza nagusia izan genduan San Pedro basilikan. Meza alemanieraz izan zan; korua, musikajoleak eta abeslariak Koloniakoak ziran; hainbat apaiz alemaniar, euren artean karmeldar ugari egozala: 13 apezpiku alemaniar, hiru kardinal, karmeldar tercsiarren Aita Jenerala eta beste 105 abadenarteko elkarmeza.

Buru eta animatzaile, Joachim Meisner, Koloniako artzapezpiku kardinalak egiten eban.

Mezaemoileak ilada luzea eginez atera ginan sakristiatik *Mein ganzes Herz erhebet dich* abesten. Kardinalak berbaldi sutua egin eban Edith Steinen izaera eta gurutzaren esanahia aurkeztuz.

Eta Eukaristia, hain ezaguna dan *Grosser Gott, wir loben dich* (Jainko handia, bedeinkatzen zaitugu) abestuz Jaingoikoari eskerrak emonez amaitu zan.



3. Urriaren 11ko arratsaldean. Katakunbak eta basilikak ikusten

Goizeko 10etatik 12,15era arte *S. Pietro* plazan ospakizun handia bizi izan ondoren, *Colosseo* inguruko jatetxe batera joan ginan indarrak berriztatzerako, arratsaldeko itzuli luzeari aurre egiteko.

San Kalistoko katakunbak

Kristau-aroko lehen mendeetako *Via Apia*-ko hilerri eta katakunben artean garrantzitsuenak San Kalistokoak dira. 15,30ean heldu ginan bertara autobusez. Kristauen hilerri luze honek hainbat kilometro ditu. Bertan aurkitu genduzan kristau-fedearen lehen aztarnak. Kornelio eta Zipriano santuen fresko ederrak edota bi arrain eta ogi-otsararen pinturak, Kristo gogora ekarriz. Kristoren anagrama handiko arraina. Arrainak, (IXTHYS) grekoz, "Iesu Kristo Jainkoaren Seme, Salbatzai-



Katakunbako Artzain Onaren irudia.

lea" esakun ospetsuaren hasierako letrak jasoten ditu. Era berean, ederra da Kristo artzain onaren irudia izanik bizkar gainean ardia daraman artzainaren imajina. Bertan ikusi ahal izan genduzan Aita Santuen kriptak, III. mendeko idazki interesgarri batzuk, eta Santa Zezilia ospetsuaren hilobia.

Era berean, badira, baita bere Kristoren bizitzako hainbat jazoera agertzen dituen beste fresko batzuk: aparteko interesa dabe Jesusen bateoak, Jesussek apostoluekin eginiko afariak, ogien ugariaketak,...

Basilikak

Lur azpitik urten eta lurgaineko monumentuak eta basilikak ikusten emon genduzan arrasaldeko gainerako orduak.

Via Apia-tik joanez, eta *Via Apia Nova*-ren amaieran, Erromako erdialdean, San Joan Laterango Basilika ikusgarria eta plaza aurkitu genduzan. Bertan aurkitzen dan obeliskoa Erro-



mako zaharrena da. San Juan, Konstantino Handiak eraikitako Erromako lehen eleiza, eta eleiza guztien ama danak hainbat arkitektura estilo ezbardin ditu: IV. mendeko baptisterioan hasi, Erdi Aroko klaustrotik jarraitu, eta barruko barroko arrandituraino. Hainbat hondamen basati, lurrikara,... izan ditu, baina, gero barriro jaso... Laterango jauregia Aita Santuen egoitza izan zan 1309an Aviñongo desterrurarte.

Ostean beste basilika bat, hain zuzen ere, *Santa Maria Maggiore* ikustera joan ginan. "Maggiore" deitzen dabe Erromako



eleizarik handiena dalako. IV. mendekoa da. Barruan 86 metroko luzeran mosaiko ederrak, eta urrez estalitako errenazimenduko sabaia daukaz. V. mendean Sixto III.ak eraldatua izan zan... Benetan itzela!

Ezin dogu ahaztu, era berean, hainbeste aldiz ikusi genduan monumentu bat: *Castell Sant' Angelo*. Jatorrian Adriano inperadorearen mausoleo izan zan, 135-139. urteen artean egina. Ge-

roago babeslekua eskaini eutsen Aita Santuei gudu eta inbasio garaietako larrialdietan; kartzela bere izan zan. San Pedrotik hurrean, ibai ondoan dago. Gazteluaren gailurrean aurkitzen dan brontzezko aingerua XVIII. mendekoa da.

4. Polonian.

Unerik garrantzitsuena Edith Steinen kanonizazioa izan genduela, Erroman egun bi eta erdi egin ostean, santaren bizitza honetako azken geltokia izan zan Auschwitz-eko kontzentrazio esparrura joateko ordua heldu zan. Hurrengo egunak hainbeste judegu eta bestelako hilak izan ziran lurraldean, haur da, Polonian egin genduzan.

Hara heltzean lehenengo ikusi genduen, Poloniak irekiak dituela askatasun eta itxaropenerako bideak izan zan. Handia izan da, inguruan dituan Austria, Alemania, Errusia eta beste estatuen menpe mendeak eta mendeak eginda gero azken urteetan bertako gizartean izandako aldaketa. Eta, egin-eginean ere, monumentuek polakoen buruan hain sartuta dagoen iragan hori gogoratzen deuskue.



Warszawako Ghettoa osorik deseginda.

a. Warszawa

Varsovian egindako ikustaldiko bi egunek, lehenak eta azkenak, nazismoaren garai tragikoak gogoratzen deuskuez. Hiiz gutxitan laburbiltzen ditugu hamarkada horreek: Ghettoa eta heriotza, hondamena eta berreraiketa.

Lehen eguneko ikustaldia historiaren oroitzapenez bete izan zan. Benetan dar-dar jartzekoa da Varsobiako barruti batean judeguen ghettoa, ehundaka mila judegu hil ziraneko hondamena (gaur egun Ghettoke heroiei eginiko monumentu bategogoratzen dau), eta gero gertatutako Varsoviaren alde handiaren errausketa eta berreraikuntza.

Gerraren amaieran geratutakoak eta guk bidaiari ikusitakoak harriturik utzi ginduzan. Batez ere hiriko alde zaharrea izandako barrikuntzak.


Atsegina izan zan gure bidaiako azken eguna, igande goiza. Eguraldi ederra egiten ebala, Forum hoteletik urten eta hiriko erdigunerantz, Nikolas Coperniko astronomoaren monumentu ondotik igaro, ezkerretara Chopin musikari handiaren bihotza kontserbatzen dan Gurutze Santuaren eleiza utziz eginiko ibilbidea; gero, Poloniako presidentearen jauregia eskumatara



Warszawako plaza nagusia, barristatuta.

utzi eta alboan dauan karmeldarren antzinako eleizatik zehar berreraikitako erdigunera heldu arte. Hasieran, plazan Poloniako Hiriburua Kraków-etik Warszawa-ra ekarri eban Sigismundo erregearen monumentua dago; eta eskumatara errege-gaztelua. Eta, aurrerago, katedral ondotik igaroz, errautsia izan aurretik eban estiloan berreraikitako erdiko plaza politera heldu ginan.

Jarraian ehunka eta ehundaka metro ibilita gero Vistula ibaira hurbildu ginan, bazterretik zenbait kilometroko ibilbidea dauala; ibai nahiko zabala eta baketsua da, zubi luzeak dituela; halako lau ikusteko aukera izan genduan... Goiz oso atsegina, atsedean hartzeko igande goiz ederra...




Chopin musikariari eginiko monumentua.

b. Czestochowa.

Gure erromesaldian garrantzi handia eban gunea, Poloniako espitualitate zentro nagusia eta Andra Mariaren eleiza ospetsua dan Czestochowako santutegia zan. Jasna Góra-ko santutegia Czestochowa eta inguruak ikusten diraneko tontor batean dago. Heldu ginanean zirimiria egiten eban.

Santutegiaren inguru hau bost mendetan zehar eraikia da; hormatarrez inguratutako babesleku hau fedearen eta kultura-



ren babesgu-
nea izan da.
XVII. mende-
an izandako
jazoera poli-
tiko-milita-
rrengatik,
Jasna Gõra
Poloniako
herriarentzat
askatasun er-
lijioso eta
politikoaren
eredu bihur-
tu zan.

Errome-
saldi-gune

oso aktiboa da. Gure taldea-
rekin Andre Mariaren irudi
mirarigilearen kaperan esan
genduan alkarmeza. Ikonoa
1673. urteko zilerrezko pa-
nel batek babestuta dago.
Imajina zurezko taula (122 x
82 cm.) gainean margoztuta
dago. Andra Mari "beltzaran"
honen ezaugarria, beste biak
zeharkatzen dituan orbanari
paraleloan dagozan bi orba-
nek (ebakidurek) markatuta-



ko eskumako masaila da. Markak XV. mendean monastegian sartu ziran lapurrek eginak dira; eta koadroa zaharberritu zanean, barriro pintatu zanean, ez zituen estaldu astakeria gogoratzeko.


Andre Mariaren santutegi honetan poloniarren erlijiotasun sakona ikusi ahal izan genduan. Eta moja batek argi azalduta, bertako museoan Koloniako erlijio-historiari buruzko hainbat gauza ikusi bere bai.

c. Kraków

Hilaren 15 horretan, 13ak inguruan urten genduan Czstochowa-tik, oraindik Poloniako hegoalderago dogoen Kraków-erantz. Uri hau ezin izan eben birrindu naziek. Hori dala eta, aukera ezin hobea eskaintzen dau monumentu historikoak eta uriko alde zaharra ikusteko.

Zorionez, gidari oso ona izan genduan Kraków-tik ibiltzeko geunkazan orduak ondo aprobetxatzeko. Hainbat mendetan zehar Poloniako uriburua izandako uri hau, historia eta monumentuz, arte eta erlijioz jantzita dago.

Gune eta "monumentu" handienetatik hasteko



Merkatu-ko plaza ekarriko dogu gogora. Uriaren XIII. mendeko egituraketa gure garaietaraino heldu da. Europako Erdi Aroko handienetarikoa da. Plazaren hegalean XIV eta XV. mendeetako eraikinak dagoz, baina XVII eta XIX. mendeetan herreraikita. Eta plazaren erdian eraikin handi bat, "Oihalen Etxea" deitua.

Plazaren ertzean Andre Mariaren eleiza dago, daukan aberastasunik ikusgarriena "*Veit Stoss*" erretaula (XV. mendekoa) da. Itzelezko neurriak dituan zuraren gaineko poliptikoa da; Europako beranduko eskultura gotikoaren sorkuntzarik ederrenetarikoa. Erretaulak erdian, bi ate dituan panel bat dauka, ixtarakoan kanpoaldetik pintatutako eszenak gogoratzen izten dauala. Dana ikusteko aukera izan genduan, une haretan erdiko panelari argizaría emoten ebizan eta.

Plazaren beste ertzean udalaren dorrea dago; berau da XIX. mendean lurreratutako antzinako udalaren aztarna bakarra. Dorre honetako bitxikeriazat, gaur egun here, antzina legez, suhiltzaileek orduero 70 metro dituan dorrearen gailurretik tronpeta jotzen jarraitzen dabela gogoratu daikegu.

Baina historiaren aztarna multzorik handiena daukana *Wawel* muinoa da, errege-gaztelua, katedrala eta harresiak dituana. Bertatik oso-osoan ikusten da behean uria. IX. menderako eraikita egoan kristau eleiza hau. Paleolitiko garaiko azternak bere aurkitu dira bertan. Eta muinoaren barrenetik doa lasai-lasai Vistula ibaia.

Uriak zituan harresi handiei dagokienez, horma batzuk irauten dabe, batez bere XV. mendekoa izanik San Florianen ate ondoan dagozan gezileiho handiak. Honeek ziran uriak zituen gotorleku handien hondarrak.

Kraków, bere egituraketa historikoa dala eta, inpresio ona egiten dauan uria da.


Hilaren 15a zan eta kaleetan banderak ageri ziran, hurrengo eguncan poloniarrentzat egun handia zala iragartzen: egin-eginan bere Kraków-eko artzapezpiku izan zan Jon Paulo II.aren aitasantutzaren hogeigarren urteburua.

d. Wieliczka

Baina zerik harrigarriena eta apartekoena Kraków-etik 13 kilometrora dagozan Wieliczka-ko gatz-meategiak iruditu jatazan. Gatz-meategiok gaur egun bere jardunean dihardue, 600 langile inguru dituela.

Turistei erakusten jakezanak, ostera, meategiko zuloetako lurpeko pasabideak dira. UNESCO-k 1978an Munduko Kultura eta Natur Ondarearen lehen zerrendan sartu zituan.

Eskualde honetan garai neolitikoan hasita atera izan da gatz. X-XII. mendeen artean kopuru handitan atera zan. Halan da bere, Wieliczka-ko gatz-meategia orain dala 700 urte hasita ustiatzen da. Neurri ezberdineko 2.000 zulaketa, 9 mailatan eginda, eta alkarren artean 200 km.ko pasabide bitartez lotuta.



Baina zerik bitxiena eta ikusgarriena ez da hori, guneetan egindakoa baino: eleizatxoak, irudi asko eta argi-armiarma ikusgarriak dituan "katedrala", Jesusen bizitza erliebetan, esaterako, azken afaria..., Poloniako pertsona ospetsuak gogoratze-ko egindako gelauneak... Eta guztia gatz ez eginda. Eta nahitaez egon behar aretoak, jatetxeak,... Eta guzti hori gatz-meategi barruan.

5. Auschwitz-Birkenau. Holokaustoa

Gure errromesaldiak bi gune nagusi zituan: hilaren 11n San Pedro plazan egindako Edith Steinen kanonizazioa, eta beraren gorespenaren hasiera, hau da, Auschwitz-eko martiritza.

Hilaren 16a zan Auschwitz-Birkenau-ko kontzentrazio esparruak bisitatzeko eguna. Egun hori gomutapen historikoz bete izan genduan, aurreko egunetako monumentuen antzekorik izan ez arren... Erdigunetzat Auschwitz eta, gero, Wadowice eta Czerna.



Auschwitz/Oswiecim

Kraków-etik 61 kilometrora, historian izan dan basakeriarik handienetarikoaren gomutaleku handia dago; bertan hil zituen miloitik gora judegu eta nazientzat gogokoak ez ziran beste hainbat eta hainbat pertsona... Guzti hori jatorku gogora Auschwitz-Birkenau esaten edo idazten dogunean. Gaur turismo-gune handi bihurtuta daukagu, urtero 1.500.000 pertsona inguruk bisitatzten dabela.


Seguruenik errromesaldi osoko unerik hunkigarriena izan zan taldeko gehientzat .

Kontzentrazio esparrura sartu aurretik Eukaristia ospatu genduan, hain zuzen bere giza gaiztakeriaren gomuta eta espazio-leku izateko eraikitako moja karmeldarren monastegian; kontzentrazio esparruko atetik 200 bat metrora dago.

Esparruko etxeak eta barrakak museo eginda dagoz; lorraztik ez izateko ahaleginak egin arren naziek, desegin ez zituen gauzak eta gomutagarriak batzen ditue.

Pertsonak zerbaki hutsak ziran; paperean idatzitako zerbakiak balira legez erabiliak: behar ez diranean sutara botatzen dirala.

Auschwitz, 1940an Poloniako atxilotu politikoentzat sortua izan ostean, geroago Europa osoko nazioarteko esparru egin eben, batez bere nazio ezberdinetako judeguak, baina baita errusiako gerrako espeak, ijitoak... batzeko. 1941ean hasi ziran Auschwitz II edo Birkenau bigarren esparrua egiten. Pertsonak garbitzeko sarraski-esparru bihurtu eben. Auschwitz-en bakkarik, 1942an eta 1943an 20.000 kilo gas (Ziklon B) erabili eben; kontuan hartu behar da nahikoa zirala 5 edo 7 kilo 1.500 pertsona hiltzeko.



Auschwitz-ek, lan oso gogorra, janari gutxi, gaixotasunak, hotza, ... gas-gelak, heriotza, erreketak, hautsa... esan gura eban. Erre-labetan egunero 350 pertsona inguru erretzen ziran. 1944an atxilotutako gizon-emakumeen kopurua 100.000 pertsona ingurukoa izan zan.

Gomutagarri triste ugari geratu jakuz: naziak ateratako argazkiak, atxilotuen marrazkiak, ... lorratzak, bizirik atera ziran lekukotasun izugarriak, hildakoen gauzak, ... Azkenen artean piloan: garbitutako pertsonen uleaz egindako oihalak, eta oraindik saldu barik eukezan 7.000 kilo giza ule; milaka eta milaka zapata, hortzetako eskubila, jantzi, betaurreko, prote-si, ... izana eta helbideak dituen maletak.

Auschwitz-Birkenau-ko kontzentrazio eta sarraski esparru honetan milioitik bi milioiraino pertsona hil zituela uste da. Egun batzuetan 5.000tik gora hiltzera heldu ziran. Halakoen artean Maximiliano Kolbe, beste pertsona baten ordeztzarik txarrenetarikora, goserik hiltzera kondenatua.

Nire bidaia-lagunak zurt eginda egozan; ni ez hainbeste, ordurako Austriako beste kontzentrazio esparru ospetsu bat Linz inguruko Mathausen-ekoa ezagutzen nebalako.

Bertara eroan ehen Edith Stein bere aitzarekin eta beste askorekin batera. Edith Steinek 44.074. zanbakia eukan. Zanbaki hori 1942ko abuztuaren 9an gaseztatua izan zan Auschwitz-Birkenau-n. Zanbaki hutsa bakarrik. Abraham, Isak, Jakob-en Jaungoikoarentzat, Jahweh, Jainko biziarentzat Teresa Benedikta Gurutzekoa pertsona oso kutuna zan; hain maitatua izanik abuztuaren 9 horretan aintzara eroana, San Pedro plazan 1998ko urriaren 11n mundu osoaren aurrean goratua.

Heriotza baino hilabete batzuk lehenago idatzi eban *Gurutzeko zientzia* liburua. Maitasunez berbizkunde bihurtzen dan Gurutzea...

Garai honetako halako tragedia handiaren aurrean honako hau idatzi eban berak: "Mundua kontraesan bez beteta dago. Az-

kenean ez da kontraesanik geratuko. Bakarrik maitasun handia geratzen da”.

6. Wadowice eta Czerna


Wadowice

Kontzentrazio esparrua ikusi ostean, hurreko Wadowice herrira joan ginan eta Jon Paulo Liaren jaiotetxea bisitatu genduan. Eraikin on baten lehen solairuan dago; etxebizitza txikia zan: *bi gela eta sukaldea; solairu hori eta beste bat gaur egun Aita Santuaren museo egin ditue: familiako argazkiak, Aita Santuaren gomutagarri pertsonalak, esaterako, eskiak, etab. batuz.*

Kale berean dago Jon Paulo bateatua izan zan Etengabeko Babesaren eleiza. Eleiza aurrean, Aita Santu poloniarren aita-santutzaren hogeigarren urteburuko ospakizun-egintzetarako gertu jarritako plaza.

Ez da ahalegin handirik egin behar poloniarrek, Aita Santua euren herritarra dala eta, erakusten daben harrotasunaz konturatzeko.

Czerna





Arratsalde egin genduen gure azken ikustaldia. Hain zuzen bere, "basamortua" deituriko Czerna-ko karmeldarren komentura. Leku zoragarri baten dago. Bertan dago Jon Paulo II.ak santu aitortutako Rafael Kalinowski (1835-1907) karmeldar santuaren hilobia.

Kalinowskik Poloniaren historia-atal bat gogoritzen deusku. Errusiako armadako ingeniaria izan, eta ez eban bere anaia poloniarren aurka burrukatu nahi izan; geroago defentsako ministro izan zan. Errusiarrek 10 urtetan eduki eban erbestertuta Siberian. Geroago karmeldar teresiar egin zan. Santu baten bizimodua egin eban Poloniako karmeldarren probintzia barrero ezartzen saiatuz.

Hamaikatxo oroipen datorkiguz gogora Karmeldar apal horrenak! Bertan argazki batzuk atera genduzan, horrela ingurune oso politaren eta Rafael Kalinowski-ren arima ederraren hainbat gomutagarri aldean ekarriz.

Begiak eta gogoak ase-ase eginda amaitu genduan poz-pezik gure erromesaldia.

Julen Urkiza - Patxi Uribarren